

**4/2024 TXOSTENA, OTSAILAREN 22KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-
BATZORDEAREN BATZORDE IRAUNKORRARENA.****XEDEA: AZTERTZEA ZEIN DIREN DURANGOKO UDALEKO ENERGIA-ZERBITZUAK
HORNITZEKO ETA ARGI-SISTEMA BERME TOTALAREKIN MANTENTZEKO ZERBITZU-
ETA HORNIDURA KONTRATU MISTOKO KOSTU-EGITURA ETA PREZIOAK****I.- AURREKARIAK:**

2023ko abuztuaren 14an, Durangoko Udaleko eskabide bat sartu zen Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren erregistrora, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearentzat. Eskabide horretan, batzorde horri eskatzen zitzaion txosten bat egiteko Durangoko Udaleko energia-zerbitzuak hornitzeko eta argi-sistema berme totalarekin mantentzeko zerbitzu- eta horniketa-kontratu mistoko egitura-kostuei buruz eta prezioak berrikusteko formulari buruz, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren (ED) 9.7 artikuluari jarraikiz.

Horretarako, lizitazio-xedearen azalpen-memoria igorri zen, aditzera emanez memoria horretan lantzen dela nola eman energia-zerbitzuak eta mantendu berme totalarekin Durangoko udal argi-zerbitzu publikoa hornidura- eta zerbitzu-kontratu misto baten bidez.

Kontratua exekutatzeko epea 10 urtekoa da, eta aurreikusten da jarduera 2024ko urtarrilaren 1ean hastea.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29.4 artikulua bigarren paragrafoaren arabera (SPKL), lizitazio-kontratuko administrazio-klausuletako pleguetan aurreikusten da prezioak berrikusiko direla 55/2017 EDko 10.artikulua arabera.

Halaber, 55/2017 EDren 9.7 artikuluari jarraikiz, sektoreko operadore ekonomiko batzuei eskatu zitzaion kostu-egitura bidaltzeko; jasotako informazioan oinarrituta, kostu-egituraren proposamena eta informazio publikoaren izapidea egin ziren, eta ez da egon inolako alegaziorik.

II.- ESKUMENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko Dekretua bigarrenez aldatzen 154/2022 Dekretuaren bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren

Aldizkarian argitaratua, 2022ko abenduaren 28ko EHAAn), gehitu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko hamabigarren xedapen gehigarria.

Xedapen horretan, jasotzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrak egin behar duela nahitaezko txostena, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea garatzen duen 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikulua araberakoa, eta, horretarako, hogeit eguneko epea izango duela, toki-erakundeen eta haren mendeko organismoen edo entitateen txostenaren eskaera jaso, eta hurrengo egunetik aurrera.

Txostenaren irismenari dagokionez, hura mugatzen da Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duen otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 9.7 artikuluari dagozkion alderdietara.

III.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

Lehenengo eta behin, aipatu behar da kontratu publikoetako prezioak berrikusteko erregulazioa, zeina SPKLn jasotzen baita, egokitu egiten dela Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea. Ildo horretatik, prezioak ez dira berrikusiko indize orokorren arabera, baizik eta indize espezifikoen arabera, eta indizeok, berriz, jardungo dute kontratatutako prestazioaren kostu-osagaiak adierazten duten formulen bidez.

SPKLren 103. artikulua araberakoa, kontratu publikoetako prezioak aldizka berrikusi ahal izango dira, eta aurrez aurretik zehaztutako modu batean; horretarako, hori justifikatu beharko da, bat etorritik 55/2017 EDn ezarritako baldintzekin.

Era berean, 55/2017 EDren 9. artikulua, zeina baita administrazio publikoen obra-kontratuak eta armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuak ez diren sektore publikoko kontratuetan prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusteari buruz, xedatzen du kontratu horien prezioak aldizka eta aurrez zehazturik berrikusi ahal direla, kontratua formalizatu zenetik bi urte igaro ondoren eta, gutxienez, zenbatekoaren ehuneko 20 bete ondoren; betiere, kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea bost urtekoa edo gehiagokoa bada, eta hala aurreikusten bada baldintza-pleguetan, non zehaztuko baita zer formula aplikatu berrikusteko. Bere aldetik, SPKLren 103. artikulua aukera ematen du energia-kontratuak berrikusteko, kontuan hartu gabe zein diren exekuzio-portzentajeak edo zenbat urte igaro diren.

Halaber, 9. artikulua finkatzen du zer eduki izan behar duen kontratazio-espeditari erantsi beharreko memoriak, eta zer aurreikuspen zehaztu behar diren pleguetan prezioen berrikuspenari buruz; era berean, artikulua horrek ezartzen du berrikuspena ezin dela egin kontratuaren inbertsioa berreskuratzeko epea pasa ostean.

Aipatutako 55/2017 EDren 9. artikulua 7. apartatuaren arabera, bost milioi euroko edo gehiagoko prezioa duten kontratuarentzat, kontratazio-organoak nahitaezko txosten bat sartu behar du kontratazio-espeditari, kostu-egitura baloratzen duena.

Aipatutako 55/2017 EDren 3., 4. eta 7. artikuluek jasotzen dute zer printzipio eta arau orokorrek arautzen duten nola gauzatu prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena eta nola zehaztu aplikatu beharreko formulak, zeinak, besteak beste, hauek baitira:

- Jarduera gauzatzeko edo kontratuaren xedea betetzeko kostu zuzeneko, ezinbesteko eta esanguratsuekiko (>% 1) lotura.
- Ondorioz, berrikuspenak gorantz edo beherantz egin ahal izango dira, kostu horien aldakuntzaren arabera.
- Eskulanaren kostua kontuan hartzen bada, aldaketa hori ezingo da izan sektore publikoko langileena baino handiagoa, zeina Estatuko Aurrekontu Orokorretan ezartzen baita.
- Ez dira inolaz ere berrikusiko amortizazio-kostuekin lotutako kostuak, finantza-kostuak, gastu orokorrak edota egitura-gastuak, ez eta mozkin industrialak ere.
- Berrikuspen-erregimenetan, soilik sartu ahal izango dira operadore ekonomikoaren kontrolpean ez dauden kostuen aldaketak. Ulertuko da kostuen aldaketak operadorearen kontrolpean daudela, baldin eta zenbait praktiken bidez saihestu ahal izan badira; adibidez, hornitzailez aldatuta.
- «Enpresaren efizientzia eta kudeaketa ona»ren printzipioaren arabera, berrikuspen-erregimenak erreferentzia gisa hartuko du kostu-egitura, ondo kudeatutako enpresa efiziente batek jasan beharko lukeena dagokion jarduera garatzeko gutxieneko kalitate-mailarekin, zeina eskatzen baitute aplikatu beharreko araudiak edo kontratuaren klausulek.
- Era berean, espeditari nahitaez txertatu beharreko memoria batean, justifikatu behar da betetzen direla hala kontratuko kalitate-baldintzak nola funtsezko betebeharrak. Hori ezinbestean egin beharko da berrikuspena gauzatu ahal izateko.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeko Batzorde Iraunkorrari bidali behar zaio. Kontratazio-organoak kostu-egiturari buruzko balorazio-txostena prestatzeko, organo horrek honako hau egin behar du: a) Eskatu sektoreko bost operadore ekonomikori bidali diezaioeten nork bere kostuen egitura; b) Jardueraren kostuen egituraren proposamen bat egin, ahal den neurrian, operadore ekonomikoen erantzunetako informazioaz baliatuz; c) 20 eguneko

epeko informazio publikoaren izapidepean jarri zein den kostuen egituraren proposamena, eta d) Kostuen egituraren proposamena bidali aipatutako Batzorde Iraunkorrari.

SPKLren 103. artikulua 2. apartatuaren arabera, «prezioen aldizkako eta aurrez zehaztutako berrikuspena honako kasu hauetan bakarrik izango da posible: obra-kontratuetan, Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuetan, energi-hornidurako kontratuetan eta inbertsioa berreskuratzeko bost urteko edo gehiagoko epea duten kontratuetan. Epe hori aipatutako errege-dekretuan ezarritakoarekin bat etorri kalkulatu da».

Horri dagokionez, otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretuaren 10. artikulua garatu egiten du Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea, eta zehazten du zer formula matematiko erabili inbertsioak berreskuratzeko epea kalkulatzeko:

$$\sum_{t=0}^n \frac{FC_t}{(1+b)^t} \geq 0$$

Non:

- t: zenbaki osotan neurtutako urteak.
- FC_t : t: urtean espero den kuxako fluxua.
- b: deskontu-tasa da; balioa izango da azken sei hilabeteetan Estatuaren hamar urterako zorrak bigarren mailako merkatuan batez beste izandako errendimendua, oinarrizko 200 puntuko diferentzian gehituta.

IV. DURANGOKO UDALEKO ENERGIA-ZERBITZUAK HORNITZEKO ETA ARGI-SISTEMA BERME TOTALAREKIN MANTENTZEKO ZERBITZU- ETA HORNIKETA-KONTRATU MISTOKO KOSTU-EGITURAREN ETA PREZIOAK BERRIKUSTEKO FORMULAREN IZAERAREN ANALISIA

IV.1. Dokumentazioa

Hasiera batean, Durangoko Udalak honako dokumentu hauek bidali dizkio Euskadiko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

- Alkateak sinatutako eskabidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari zuzendua, txosten bat egin dezan baloratzeko zer nolakoa den horniketa- eta zerbitzu-kontratu misto baten bidez udaleko energia-zerbitzuak eta argi-sistema publikoa berme totalarekin mantentzeko lizitazio-espeditzeko kostu-egituraren eta prezioak berrikusteko formularen proposamena (16-2022-ID_KN espedientea).
- Eskabide-eredua, 55/2017 EDko 9.7 artikulua betetzeko sektoreko operadore ekonomikoari bidalia, nork bere kostu-egiturak igor ditzaten.

- Azterketa ekonomikoa, barnean hartzen duena zein diren kostu-egitura eta prezioak berrikusteko formulak.
- Zerbitzu teknikoek egindako txostena, organo eskudunak kostu-egitura proposamena onar dezan.
- Administrazio-klausula partikularren pleguaren karatularen zirriborroa.
- Kostu-egituraren proposamenaren informazio publikoaren iragarkia, BAO on argitaratua, 2023ko apirilaren 17an.

Abuztu eta irailean zehar, Batzordeak eta Udalak komunikazio-truke bat izan zuten, eta Udalak lehen batean aurkeztu zuen informazioa analizatzen zentratu zirenak, Udalak berak geroago osatu zuena onartutako kostu-egitura diseinatzeko egindako kalkulu batzuk Batzordera bidaliz.

Lehenengo aurre-analisi hori egin ostean, alde bietan adostuta, beste azterketa ekonomiko bat prestatu zen, eta Batzordeari aurkeztu zitzaion analiza zezan. Honako alderdi nagusi hauek eragin zuten aldaketa hura:

- Erabilitako deskontu-tasak inbertsioaren berreskuratzeko eperako, zeren ez zeuden nahikoa eguneratuta batzordeak berrikusi zituenean.
- Sektoreko operadore ekonomikoek igorritako kostu-egiturak ez zetozen bat bidalitako kostu-egiturak eta kontratuaren izaerarekin, zeren kontratuaren izaera aldatu egin zen operadoreei eskabidea egin ostean.

Ondorioz, 2023ko urriaren 24an, Durangoko Udalak dokumentu hauek bidali zituen:

- Administrazio-baldintzen pleguko karatularen zirriborro berri bat, tramitazioan antzemandako gai batzuk zuzentzen zituena.
- Plegu teknikoaren zirriborroa.
- Azterketa ekonomikoaren bertsio berri bat, hanbat alderdi zuzentzen zituena; garrantzitsuenak, aurreko paragrafoan zerrendatu direnak.

Komunikazio-trukealdi berri baten ostean, eta 2023ko azaroaren 29an bilera bat egin eta gero, Durangoko Udalak azterketa ekonomikoaren azken bertsio bat prestatu zuen, eta haren kostu-egitura informazio publikoaren izapidepean jarri zuen (2023ko abenduaren 11ko BAO).

Alegazioak jartzeko epean alegaziorik jaso ez zenez, bidalitako azterketa ekonomikoaren azken bertsioa aztertzen da.

IV.2. Azterketa ekonomiaren analisia

Honako elementu hauek ditu Durangoko Udalak aurkeztutako azterketa ekonomikoak:

- Xedea

- Arau-esparrua
- Oinarri ekonomikoak
- Kostu-egituraren proposamena, barnean hartzen duena:
 - Zer operadore ekonomikorekin jarri diren harremanetan eta zer informazio mota eskatu zaien
 - Operadore ekonomikoen proposamenak
 - Udalaren proposamena zerbitzuaren kostu-egiturarako
- Zein diren berrikus daitezkeen kostuak eta zein ezin daitezkeen berrikusi
- Berrikus daitezkeen kostuen justifikazioa, honela banatuta:
 - Mantentze-lanetako langileak
 - Energia elektrikoaren hornidura
 - Material elektrikoak
 - Teknikariak
- Zein diren berrikuste-indizeak
- Inbertsioa berreskuratzeko epea, barnean hartzen duena:
 - Nola kalkulatu deskontu-tasa
 - Kutxako fluxua
 - Inbertsioa itzultzeko denbora
- Prezioak berrikusteko proposamena, barnean hartzen duena:
 - Prezioaren osagai finkoak
 - P5 ematea (zerbitzuak eskatu ahala ematea)
 - P1 ematea – Energia-hornidura
- Ondorioak

Ondoren, labur bilduko da zein den azterketa ekonomikoko informaziorik garrantzitsuena, eta aurkeztuko da zer ohar egin duen Batzordeak, 154/2022 Dekretuko hamabigarren xedapen gehigarria betetzeko eta 55/2017 EDren 9.7 artikulua betetzeko.

Xedea, arau-esparrua eta oinarri ekonomikoak

Atal horiek azaltzen dute zergatik egiten den txostena, zer legek exijitzen eta arautzen dute prezioak berrikusi beharra, eta zer testuinguru ekonomikok justifikatzen duen kontratuko prezioak aldizka berrikusi beharra.

Kostu-egituraren proposamena

Zer operadore ekonomikorekin jarri diren harremanetan eta zer informazio mota eskatu zaien

Durangoko Udala zazpi operadorekin jarri zen harremanetan: Acciona, Edison Next, Elecnor, Electricidad Martin, Ferrovial, Imesapi, Serveo.

Enpresa horiei eskatu zien bete zezatela koadro bat, «Operadore ekonomikoen proposamenak» azpiatalean azaltzen direnen antzeko ezaugarriekin, eta operadoreak eurek sartzeko portzentaje guztiak, salbu P4 horniduraren ehuneko zeroa lehenengo urtean, Udalak aurretik ezarri batzuen.

Nabarmetzen da hornidura desberdinak bereiztu zirela kontratatzeko, kontratu-pleguetan egin zen bezala. Aurrekoari dagokionez, aipatu behar da, halaber, desberdin landu direla lehenengo urteko kostuen egitura eta hurrengo urtekoena. Kontratuko prestazio bakoitzaren ezaugarri partikularrek justifikatzen dituzte alderdi biak (adibidez, P4 prestazioa kontratuaren 2. urtean ematen hasten da, edo P5 horniduran, jasotzen da zer lan ordainduko diren primen arabera eta prezio-aula).

Oharrak

Uste da «Ibilgailuak» kontzeptuak bananduta egon behar duela, bereizi ahal izateko zer alderdi dauden lotuta ibilgailuen amortizazioarekin eta zein erregaiekin, gutxienez. Horrela egin ez denez, ulertu da berrikusi ahal diren kostu batzuk berrikusi ezin direla. Hori garatu egingo da atal honetan: «Zein diren berrikusi daitezkeen kostuak».

Operadore ekonomikoen proposamenak

Kontsultatutako hiru operadorek bidali zizkieten Udalari egitura-kostuak. Hurrengo taulak azterketa ekonomikoan aurkeztutako datuak erreproduzitzen ditu eta erakusten du zein diren jasotako informazioari erantsitako emaitzak.

Prestazioa	Kontzeptua		BATEZ BESTEKOA		TARTEA	
			1. urtea, %	Ohizko urtea (2.etik 10.era bitartean), %	1. urtea, %	Ohizko urtea (2.etik 10.era bitartean), %
P1 prestazioa – Energia-hornidura eta kudeaketa	Energia-hornidura	Energia-hornidura	64,06	20,32	60,10 – 69,08	14,60 – 26,44
	Energia-kudeaketa	Langileak	2,00	2,31	0,48 – 4,41	0,46 – 5,27
		Gastu orokorrak	2,88	2,18	0,06 – 8,39	0,06 – 6,29
		Mozkin industrialak	1,33	1,01	0,03 – 3,87	0,03 – 2,91
P2 prestazioa – Mantentze-lanak	Mantentze-lanak	Langileak	10,48	11,47	6,65 – 14,20	7,95 – 16,30
		Baliabide materialak	0,53	0,58	0,20 – 0,99	0,30 – 0,95
		Ibilgailuak	2,29	2,47	1,40 – 3,06	1,60 – 2,94
		Gastu orokorrak	1,64	2,06	1,23 – 1,90	1,83 – 2,24
		Mozkin industrialak	0,72	0,93	0,57 – 0,88	0,84 – 1,04

Gabonetako argi-sistema	Langileak	1,15	1,25	1,13 – 1,20	1,09 – 1,35
	Baliabide materialak	1,47	1,78	0,11 – 2,70	0,11 – 3,30
	Ibilgailuak	0,27	0,30	0,00 – 0,48	0,00 – 0,58
	Gastu orokorrak	0,34	0,45	0,20 – 0,42	0,20 – 0,76
	Mozkin industrialak	0,16	0,21	0,09 – 0,20	0,09 – 0,35
P3 prestazioa – Erabateko bermea	Langileak	1,73	1,84	0,73 – 2,65	0,88 – 2,54
	Baliabide materialak	1,78	2,01	0,25 – 4,00	0,24 – 4,50
	Ibilgailuak	0,59	0,60	0,31 – 0,76	0,37 – 0,73
	Gastu orokorrak	0,45	0,52	0,28 – 0,60	0,46 – 0,60
	Mozkin industrialak	0,22	0,25	0,13 – 0,30	0,21 – 0,30
P4 prestazioa – Instalazioak hobetzea eta berritzea	Inbertsioa amortizatzea eta finantzatzea	0,00	40,99	0,00	28,99 – 50,38
P5 prestazioa – Beste jarduketa batzuk	Langileak	2,80	3,07	1,50 – 3,54	1,80 – 4,00
	Baliabide materialak	0,83	0,88	0,35 – 1,30	0,34 – 1,30
	Ibilgailuak	0,34	0,33	1,02 – 1,02	0,98 – 0,98
	Gastu orokorrak	0,49	0,63	0,30 – 0,64	0,30 – 0,99
	Mozkin industrialak	0,25	0,31	0,20 – 0,29	0,20 – 0,46
P6 prestazioa – Kontrol- eta jarraipen-bulego independentea (KJBI)	Langileak	1,03	1,05	0,54 – 1,80	0,64 – 1,80
	Gastu orokorrak	0,12	0,14	0,07 – 0,20	0,09 – 0,20
	Mozkin industrialak	0,06	0,07	0,03 – 0,10	0,04 – 0,10

Aipatu behar da P5 Hornidurako «Ibilgailuak» izeneko partida bat datorrela operadore ekonomikoetako batek *motu proprio* emandako datu batekin. Udalak bere kostu-egitura zehazteko (hurrengo atalean aurkezten da), erabaki zen halakorik ez egitea, ez duelako eragin handirik osotasunean eta ulertu zelako ezen, partida hori erantsi ez zuten bi operadore ekonomikoren kasuan, subsumituta zegoela beste ibilgailu-partida batzuetan edo mantentze-lanei lotutako horniduretan zehar.

Oharrak

Udalak bete egiten ditu legez ezarritako gutxiengoak (bost eskabide) operadoreetatik egitura-kostuak lortzeko, eta, neurri batean, gainditu ere egiten ditu. Dena den, jardunbide ona litzateke beste eskabide batzuk egitea operadoreen bost egitura-kostu baino gutxiago lortzen direnean operadoreek erantzuten ez dutelako.

Udalaren proposamena zerbitzuaren kostu-egiturarako

Hurrengo taula azterketa ekonomikotik atera da, eta erakusten du zein den Durangoko Udalaren kostu-egitura egungo kontratuan.

Prestazioa	Kontzeptua		1. urtea,	Ohizko
			%	urtea (2.etik 10.era bitartean), %
P1 prestazioa – Energia-hornidura eta kudeaketa	Energia-hornidura	Energia-hornidura	62,60	13,89
	Energia-kudeaketa	Langileak	1,25	1,43
		Gastu orokorrak	0,16	0,19
		Mozkin industriala	0,07	0,09
P2 prestazioa – Mantentze-lanak	Mantentze-lanak	Langileak	13,88	15,88
		Baliabide materialak	0,33	0,38
		Ibilgailuak	1,28	1,47
		Gastu orokorrak	2,01	2,30
		Mozkin industriala	0,93	1,06
	Gabonetako argi-sistema	Langileak	1,08	1,23
		Baliabide materialak	2,95	3,37
		Ibilgailuak	0,00	0,00
		Gastu orokorrak	0,52	0,60
		Mozkin industriala	0,24	0,28
P3 prestazioa – Erabateko bermea	Langileak		1,68	1,92
	Baliabide materialak		4,06	4,64
	Ibilgailuak		0,64	0,73
	Gastu orokorrak		0,83	0,95
	Mozkin industriala		0,38	0,44
P4 prestazioa – Instalazioak hobetzea eta berritzea	Inbertsioa amortizatzea eta finantzatzea		0,00	43,31
P5 prestazioa – Beste jarduketa batzuk	Langileak		1,34	1,53
	Baliabide materialak		1,34	1,53
	Ibilgailuak			
	Gastu orokorrak		0,35	0,40
	Mozkin industriala		0,16	0,18
P6 prestazioa – Kontrol- eta jarraipen-bulego independentea (KJBI)	Langileak		1,61	1,85
	Gastu orokorrak		0,21	0,24
	Mozkin industriala		0,10	0,11

Egitura horretara heltzeko, Udala operadore ekonomikoen erantzunetaz baliatu da, eta kasu batzuk justifikatu ditu, hain zuzen ere erantzunen batez besteko aritmetikoaren desbideratze nabarmenak proposatu dituztenak.

Zein diren berrikus daitezkeen kostuak eta zein ezin daitezkeen berrikusi eta berrikus daitezkeen kostuen justifikazioa

55/2017 EDren 4 eta 7. artikuluetan ezarritako arauak betez, Udalak zehaztu du zer kostu berrikus daitekeen eta zein ez.

Honako kostu hauek berrikus daitezke:

- Mantentze-lanetako langileen kostuak
- Energia elektrikoaren hornidura kostuak
- Material elektrikoaren kostuak
- Teknikari kostuak

Kostu horiek berrikusi ahal direla ezarrita, azterketa ekonomikoko «Berrikus daitezkeen kostuen justifikazioa» atalak ondorioztatzen du, gainera, haiek berrikusi *behar* direla. Erabilitako argumentuak laburbiltzeko, esan behar da ezen, haietan denetan, kostuak beharrezkoak direla jarduera lortzeko, lanak burutzen dituen enpresaren kontroletik kanpo daudela, eta aldizka gertatzen direla.

Hona zein diren berrikusi ezin diren kostuak eta halakotzat jotzeko arrazoiak:

- Inbertsioa amortizatzeko eta finantzatzeko kostuak: amortizazio-kostuak hartzen dituztelako barnean.
- Gastu orokorrak: egitura-gastuak direlako.
- Ibilgailu-kostuak: barnean, batez ere, amortizazio-kostuak hartzen dituztelako.
- Mozkin industrialia: operadorean kontrolpean dagoelako.

Hurrengo taulan, baliokidetza bat azaltzen da atal honetan izendatu diren kostuen eta aurreko ataleko kostu-egitura taulako adierazpenen artean.

Atal honetako kontzeptua	Kostu-egiturako tauletako baliokidea
Mantentze-lanetako langileak	P2, P3, P5eko «Langileak»
Energia elektrikoaren hornidura	P1 – Energia-hornidura
Material elektrikoa	P2, P3, P5eko «Baliabide materialak»
Teknikariak	P1 – Kudeaketa, P6eko «Langileak»
<i>Instantzia desberdinen artean, berrikusi ezin diren kostuetatik, ez dago bat ere izendapena aldatzen duenik.</i>	

Oharrak

Ibilgailu-kostu guztiak partida bakar batean hartu direnez gero, zenbait gastu berrikusi ezin den gastu modura izendatu dira; haien artean, erregaiak eta labaingarriak nabarmen daitezke. Baina, kostu-egitura aletuago bat eskatu izan balitz, berrikusteko modukoak izango ziren. Nahiz eta aipatu «Ibilgailuak» partidetakoa gastu nagusia amortizazioak direla, ez da ebidentziarik aurkezten haren magnitude oso apala izatekoa (kontratuko kostu totalen ehuneko bat

baino txikiagoa), berrikuspena baztertzea ekarriko lukeena, 55/2017 EDren 7. artikuluaaren arabera.

Zein diren berrikuste-indizeak

Hona zer indize erabili diren:

Berrikus daitekeen kostua	Erabilitako indizea (hiperestekako lotura eta guzti)
Mantentze-lanetako langileak	Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboa (BAO)
Energia elektrikoaren hornidura	Demanda nazionalaren orduz orduko azken prezioa, batez bestekoa (OMIE)
Material elektrikoa	Material eta ekipo elektrikoen faktorearen kostu-indizea (INE)
Teknikariak	Ingeniaritza-enpresetako hitzarmen kolektibo nazionala; azterlan teknikoetako bulegoak; ikuskaritza, gainbegiratze-lanak eta kontrol teknikoa eta kalitatekoa (BOE)

55/2017 EDren 5. artikulua betetzeko, langile-kostuek gehienez ere izango duten mugatzat joko da zer igoera aplikatuko zaien sektore publikoko langileen ordainsariei.

Udalak, behar izan duenean, indize bananduak erabili ditu, aplikazio-eremua mugatzen dutenak berrikusi behar den kontzeptura. Erabiltzerik izan ez duenean (adibidez, aldi luzeko aurreraeragina duten hitzarmenetan), azaldu da zergatik erabili den indize ez hain banandua, eta ahaleginak egin dira banandu aurre-aurreko mailara jotzeko.

Oharrak

Energia-horniduren kostuak berrikusteko erabili den indizeak arazoak ematen ditu erabiltzeko, eta arazook aurrerago zehaztuko dira «Prezioak berrikusteko proposamena» atalean.

Ohartarazten da ezen, nahiz eta txosten honen irismen zorrotzetik kanpo egon, Udalak aurkeztutako kontratu-pleguen bertsioak ez duela aipatzen zein den 55/2017 EDren 5. artikuluko langileen ordainsarien igoera muga.

Inbertsioa berreskuratzeko epea

Deskontu-tasa

Deskontu-tasa lortzeko, begiratzen da zein den, txostena egiten den unean, batez besteko errendimendua hamar urtera Estatuko zorraren bigarren mailako merkatuan, informaziorik

berriena zegoen azken sei hilabeteetan (2023ko martxotik 2023ko abuztura), eta oinarrizko 200 puntu areagotzen zaizkio. Hori egokitzen da 55/2017 EDren 10.2 artikulura, eta emaitza da 5,46ko deskontu-tasa.

Kutxako fluxua

Udalaren estimazioek bereizten dute zein diren inbertsio-partidak, enpresa esleipendunak kontratuaren lehen urtean burutu beharko dituenak, eta zer partida dagozkion kontratu-exekuzioari. Inbertsio horiek batez ere zuzenduta daudenez argi-sistema efizienteagoak instalatzera, orduan, elektrizitate-horniduraren kostua txikiagoa izango da kontratuaren 2. urtean eta hurrengoetan, inbertsio horiek guztiz gauzaturata egongo baitira. Hurrengo taulak jasotzen du zein diren Udalaren estimazioak, esleipen-hartzailearen ordainketei (gastuei) dagokienez.

Kostuak (P1-P6) edo inbertsioa	1. urtea	2. urtetik 10.era bitartean
Hasierako inbertsioak	2520599,69	0,00
P1, Energia-hornidura eta -kudeaketa	404987,76	86112,86
P2, Mantentze-lanak	146764,66	146764,66
P3, Berme totala	47948,97	47948,97
P4, Amortizazioak	0,00	0,00
P5, Beste jarduketa batzuk	20082,66	20082,66
P6, KJBI	12135,88	12135,88
<i>Urtean, guztira</i>	3152519,63	313045,03

Hurrengo taulak, bere aldetik, jasotzen du zer kobratuko duen (zer diru-sarrera izango duen) gehienez ere esleipendunak. Nola eta enpresak ez duen aukerarik jarduerari lotutako diru-sarrerarik lortzeko, ulertu behar da kopuru guztiak bat datozela Udalak kontratatutako zerbitzuengatik egiten dituen ordainketekin.

Diru-sarrerak	1. urtea	2. urtetik 10.era bitartean
P1, Energia-hornidura eta -kudeaketa	499984,89	106312,17
P2, Mantentze-lanak	181190,94	181190,94
P3, Berme totala	59196,26	59196,26
P4, Amortizazioak	0	295254,54
P5, Beste jarduketa batzuk	24793,41	24793,41
P6, KJBI	14982,57	14982,57
<i>Urtean, guztira</i>	780148,07	681729,89

Oharrak

Nahiz eta, txosten hau prestatzeari dagokionez, Batzordearen agindua *sensu stricto* mugatu 55/2017 EDren 9.7 artikulura, haren ustea da ezen, eskatutako kostu-egitura analizatzeko, komeni dela ezagutzea Udalak zer estimazio hartu duen abiapuntutzat zerbitzu bakoitzeko kostuak emateko. Egindako azterketa ekonomikoak soilik azaltzen du inbertsioak banakatzeko modu labur bat, lehenengo urtean burutuko dena, baina ez du jasotzen inongo informaziorik azaltzeko nola kalkulatu diren inbertsio horiek.

Inbertsioa berreskuratzeko epea

Abiapuntutzat hartuta aurreko ataletan aurkeztutako deskontu- eta sarrera-tasa eta kostuak, Udalak uste du **hamar urtekoa** izango dela inbertsioa berreskuratzeko epea.

55/2017 EDren 9. artikularen arabera, inbertsioa itzultzeko denbora horren ondorioz, prezioak berrikusi ahal dira kontratuaren hamargarren urtea arte, eta ez urte horretatik aurrera. Intzidentalki, itzulera-denbora bat datorrenez kontratuaren iraupenarekin, prezioak urtero berrikusiko dira, behin berrikuspen horiek hasi eta gero; betiere, exekuzioa bat badator Udalak kontratuan ezarritakoarekin.

Prezioak berrikusteko proposamena

Alde batera utzita hasierako inbertsioak, Udalak kontuan hartu ez dituenak zehazteko zein izango den kontratua exekutatzeko erritmoa, exekuzioaren ehuneko 20 baino gehiago gaindituko da kontratuaren 2. urtean (ehuneko 21arekin, hain zuzen). Ondorioz, 55/2017 EDren 9. artikularen arabera, kontratuaren 3. urtean ekin behar zaie kontzeptu hauetako berrikusketa-lanei: mantentze-lanetako langileak, material elektrikoak eta teknikariak.

Aipatutako EDren artikulua jasotzen du zein den energia-hornidura kontratuetako erregulazio espezifikoa; beraz, prezioak berrikusi daitezke bai kontratua formalizatu baino lehenago, bai kontratu-urte bakoitzean, kontratua bera hasi eta gero. Udalak trataera berezi horren berri eman du, eta adierazi du asmoa duela energia-hornidura horrela berrikusteko.

Udalak uste du ezen hala P1 prestazioko energia-hornidura kontratuaren parteak nola P5 prestazioak (zerbitzuak eskatu ahala ematekoak) trataera bereziak behar dituztela prezioak berrikusteko formuletan; izan ere, kontua ez da soilik kontratua formalizatzeko egunean ezagunak diren kobrantza (esleipendunaren ikuspuntutik) batzuk eguneratzea. Hori dela eta,

Udalak hiru prezio-formula proposatzen ditu, bakoitza kontratuaren alderdi bati aplika dakion. Hiru formula horiek hurrengo azpiataletan aurkeztu eta komentatuko dira.

Prezioaren osagai finkoak berrikustea

Hemen aurkezten da zein den P2, P3, P4, P6 prestazioetako formula eta P1 prestazioko energia-kudeaketako parteari dagokiona.

Horretarako, Udalak berriro kalkulatu du zein den aztertutako parte bakoitzaren pisu espezifikoak, kostu-egitura berri bati dagokionez, zeinak kanpoan uzten baititu prestazioak baldin eta formula propioak badituzte prezioak berrikusteko. Udalak horrela jokutzen du osagai bakoitzaren pisua izendatzeko bateko hainbatean. Hurrengo taulan egindako birkalkuluaren berri ematen da.

Kostu mota	Hasierako egituraren gainera (ehuneko hainbat)	Berriro kalkulaturako egituraren gainera (bateko hainbat)
Ezin daiteke berrikusi (salbu P5 prestazioa)	% 51,76	0,6277
Mantentze-lanetako langileak (salbu P5)	% 19,03	0,2308
Material elektrikoa (salbu P5)	% 8,40	0,1018
Teknikariak	% 3,28	0,0397
Guztira	% 82,47	1,0000

Hona zer formula proposatzen duen Udalak osagai finkoak berrikusteko:

$$IMP.FIJO_{rev} = IMP.FIJO_{of} \times \left[0,6277 + 0,2308 \times \left(1 + \frac{PMto_{rev}}{PMto_{pliego}} \right) + 0,1018 \times \left(\frac{ME_{rev}}{ME_{pliego}} \right) + 0,0397 \times \left(1 + \frac{PTec_{rev}}{PTec_{pliego}} \right) \right]$$

Faktore hauek erabili dira:

- $IMP.FIJO_{rev}$: berrikusitako zenbateko finkoa (salbu P1 prestazioak – Hornidura eta P5).
- $IMP.FIJO_{of}$: esleipendunak eskaintako zenbateko finkoa (salbu P1 – Hornidura eta P5 prestazioak). Faktore horren osagaien artean, halaber, sartzen dira esleipendunak administrazio-kontratu plegu partikularretako «Proposamen ekonomikoko eredia»ren bidez proposatu dituenak. Formula honek definitzen du zen den $IMP.FIJO_{of}$ formula:

$$IMP.FIJO_{of} = \left[\frac{M}{10} + \frac{N}{10} + \frac{O}{10} + \frac{P}{10} + \frac{Q}{10} + \frac{T}{10} \right] / 1,21$$

Formula horren faktore berriak dira, kasu guztietan, zer zenbateko eskaini dituen esleipendunak kontuan hartuz prestazioaren hamar urteak eta barnean dela ehuneko 21eko BEZa. Haietako bakoitza kontratuaren prestazioetako bati buruzkoa da, eta honako hauek dira korrespondentziak:

- M: zer zenbateko eskaini den P1 – Energia-kudeaketarako

- N: zer zenbateko eskaini den P2 – Mantentze-lanetarako
 - M: zer zenbateko eskaini den P2 – Gabonetako argi-sistemarako
 - P: zer zenbateko eskaini den P3 – Berme totalerako
 - Q: zer zenbateko eskaini den P4 – Amortizazioetarako
 - T: zer zenbateko eskaini den P6 – KJBI
- $PM_{to_{rev}} / PM_{to_{pliego}}$: zer aldaketa egon den mantentze-lanetako ordainsari-tauletan, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboko soldata-igoera modura kalkulatuta, eta alderatuta kontratu-pleguak formalizatzeko unean indarrean zegoen soldata-mailarekin. Igoera horien balioak finkoak dira, eta ezagunak dira 2024rako eta 2025erako: % 2 eta % 2,5, hurrenez hurren. Hortik abiatuta, Udalak proposatzen du zein izango lirartekeen 2024ko eta 2025eko balioak faktore horretarako.
 - ME_{rev} / ME_{pliego} : zer aldaketa egon den materialen eta ekipo elektrikoen prezio-indizean (2011ko oinarria), zeina Estatistikako Institutu Nazionalak eman baitzuen argitara. ME_{rev} da berrikusten den unearen aurreko 12 hilabeteetan argitaratutako indizearen balioaren batez besteko aritmetikoa, eta ME_{pliego} , berriz, pleguak idatzi aurreko 12 hilabeteetan argitaratutako indizearen balioaren batez besteko aritmetikoa (balio hori, dagoeneko, izendatuta dago: 127,448).
 - $PTe_{C_{rev}} / PTe_{C_{pliego}}$: zer aldaketa egon den teknikarien ordainsari-tauletan, honako hauen soldata-igoera modura kalkulatuta, kontratu-pleguak formalizatzeko unean indarrean zegoen soldata-mailarekin aldean: Ingeniaritza-enpresetako hitzarmen kolektibo nazionala; azterlan teknikoetako bulegoak; ikuskaritza, gainbegiratze-lanak eta kontrol teknikoa eta kalitatekoa.

Era berean, adierazten da soldata-faktoreen igoera mugatuta egongo dela: zein den sektore publikoko langileen ordainsariei aplikatu zaien igoera. Azkenik, egungo hitzarmenek jasotzen ez dituzten etorkizuneko berrikusketei begira, aipatzen da bete egingo dela zer jasotzen duten hurrengo hitzarmenek.

Oharrak

SPKLren testu kontsolidatuaren 103.4 artikulua ematen du prezioak berrikusi beharko direla eskaintzak aurkezteko epea ala eskaintza formalizatzeko data amaitu baino hiru hilabetera, lehenago gertatzen dena. Ondorioz, data horrek ezarriko du zein den oinarritzko prezioen maila, eta kalkulatu beharko dira data horretako erreferentzia-indizeak. Horrenbestez, analizatzen ari garen azterketa ekonomikoan, ez da bidezkoa finkatzea zein den ME_{rev} / ME_{pliego} indizearen balioa, ez bada hura kalkulatzeko prozeduraren adierazgarri modura; dena dela, ez du ematen hori denik kasu honetan lortu nahi den helburua.

Udalak eredu adierazi du zein izan den $PMto_{rev} / PMto_{pliego}$ indizearen bilakaera; horretarako, soilik erabili ditu etorkizuneko soldata-igoerarako ezagutzen diren balioak; hain zuzen ere, 2024koak eta 2025ekoak. Ohartarazi behar da ezen, prezioak berrikusteko proposamenean ezarritakoaren arabera, 2026ra arte ezin izango direla berrikusi osagai finakoak, kontratuaren hirugarren urtea izango baita. Indize horrek 2024an eta 2025ean izango lukeen maila aurkeztearen helburua soilik bada eredugarri izatea, komeni da argi eta garbi zehaztea helburu hori lortu nahi dela, eta ez datorrela bat egungo kontratuaren benetako berrikuspenarekin.

Bestalde, ikusten da ez dela aipatzen zer prozedura erabiliko den jarduteko baldin eta urteko prezioen berrikusketa egiten bada dagokion hitzarmenak aurreraeragina duenean eta azkenean sinatzen den hitzarmenak atzeraeragina duenean, eta atzeraeragin hori aplikatu behar zaionean dagoeneko berrikusita dagoen aldiari.

P5 prestazioko prezioak berrikustea

Aurreko azpiataleko prozedura berari jarraikiz, Udalak, prezioak berrikusteko duen formularen bidez, kalkulatu du zein den P5 prestazioko osagai guztien pisu espezifikoak, eta hurrengo taulan azaltzen da zein den berriro kalkulatzaren emaitza.

Kostu mota	Hasierako egituraren gainera (ehuneko hainbat)	Berriro kalkulaturako egituraren gainera (bateko hainbat)
Ezin da berrikusi	% 0,58	0,1596
Mantentze-lanetako langileak	% 1,53	0,4202
Material elektrikoa	% 1,53	0,4202
Guztira	% 3,64	1,0000

Hona zer formula proposatzen duen Udalak P5 prestazioko osagai finakoak berrikusteko:

$$Preciario_{rev} = Preciario_{of} \times \left[0,1596 + 0,4202 \times \left(1 + \frac{PMto_{rev}}{PMto_{pliego}} \right) + 0,4202 \times \left(\frac{ME_{rev}}{ME_{pliego}} \right) \right]$$

Faktore hauek erabili dira:

- $Preciario_{rev}$: berrikusitako tarifa oinarria prezio-zerrendako zerbitzuetarako.
- $Preciario_{of}$: eskaintako tarifa oinarria eskaintako prezio-zerrendako zerbitzuetarako.
- $PMto_{rev} / PMto_{pliego}$: zer aldaketa egon den mantentze-lanetako ordainsari-tauletan, Bizkaiko Industria Siderometalurgikoaren Sektoreko Hitzarmen Kolektiboko soldata-

igoera modura kalkulaturik, eta alderatuta kontratu-pleguak formalizatzeko unean indarrean zegoen soldata-mailarekin.

- ME_{rev} / ME_{pliego} : zer aldaketa egon den materialen eta ekipo elektrikoaren prezio-indizean (2011ko oinarria), zeina Estatistikako Institutu Nazionalak eman baitzuen argitara. ME_{rev} da berrikusten den unearen aurreko 12 hilabeteetan argitaratutako indizearen balioaren batez besteko aritmetikoa, eta ME_{pliego} , berriz, pleguak idatzi aurreko 12 hilabeteetan argitaratutako indizearen balioaren batez besteko aritmetikoa (balio hori, dagoeneko, izendatuta dago: 127,448).

Izendatutako formula aplikatu zaie prezio-zerrendako tarifa guztiei; horrela, haiek denak proportzio berean aldatuko dira prezioak berrikusten diren guztietan.

Era berean, adierazten da soldata-faktoreen igoera mugatuta egongo dela: zein den sektore publikoko langileen ordainsariei aplikatu zaien igoera. Azkenik, egungo hitzarmenek jasotzen ez dituzten etorkizuneko berrikusketei begira, aipatzen da bete egingo dela zer jasotzen duten hurrengo hitzarmenek.

Oharrak

«Prezioaren osagai finkoak berrikustea» azpiatalean aurkeztutako ohar guztiak aplikatzen dira.

P1 – Energia-hornidura prestazioko prezioak berrikustea

Prezioak berrikusteko, P1 prestazioko energia-hornidura parte faktore bakartzat jotzen da; beraz, ez dira berriro egin behar aurreko prezioen berrikuste-formulekin egin diren kalkuluak.

Hona zer formula proposatzen duen Udalak P1 – Energia-hornidura prestazioko osagai finkoak berrikusteko:

$$Preciotp_{rev} = Preciotp_{of} \times \frac{OMIE_{rev}}{OMIE_{pliego}}$$

Faktore hauek erabili dira:

- $Preciotp_{rev}$: orduko kilovatioaren prezioa, barnean hartzen dituen energia lortzeko eta banatzeko kostu guztiak, salbu elektrizitatearen zerga berezia, berrikusia.
- $Preciotp_{of}$: orduko kilovatioaren prezioa, barnean hartzen dituen energia lortzeko eta banatzeko kostu guztiak, salbu elektrizitatearen zerga berezia, eskainia.
- $OMIE_{rev} / OMIE_{pliego}$: prezio-mailaren aldaketa, OMIE - Energiaren Merkatu Iberiarreko operadoreak argitaratuak, non $OMIE_{rev}$ baita prezioak berrikusi aurreko 12 hilabeteetako

bakoitzeko «eskari nazionaleko orduko azken prezioaren batez bestekoa»ren batez besteko aritmetikoa, eta $OMIE_{pliego}$, berriz, adierazle beraren mailaren batez beste aritmetikoa pleguak idatzi aurreko 12 hilabeteetako bakoitza amaitzen denean. (dagoeneko, balioa izendatuta dago: 114,25).

Lizitatzailleek energia hornitzeko egiten dituzten eskaintzak, eduki ere, bederatzi osagai desberdin dauzka, aldiaren eta tarifaren arabera, eta bat etorri administrazio-kontratu plegu partikuletako «Proposamen ekonomikoko eredu» izeneko eranskinarekin. Izendatutako formula aplikatu zaie energia-hornidurako bederatzi osagai horiei; horrela, haiek denak proportzio berean aldatuko dira prezioak berrikusten diren guztietan.

Energia hornitzean esleipendunak bereganatzen dituen kostuen kasuan, kostu horiek erregulazio bidez finkatuta badaude edozein delarik kostu horiek hartzen duten forma (karguak, bidesariak, gehiegizko potentziaren prezioa, doitze-mekanismoak, bonu soziala finantzatzea, elektrizitatearen gaineko zerga, kontagailu-alokairuak, balio erantsiaren gaineko zerga, eta abar), gorantz edo beherantz doitu beharko dira esleipendunari egin beharreko ordainketak, dagokion moduan, isla dadin zer aldaketa dituzten aipatutako osagai arautuok.

Oharrak

«Prezioaren osagai finkoak berrikustea» azpiataleko lehenengo oharra aplikatu ahal zaio energia-kontsumoko prezioak berrikusteko formulari ere; ez da bidezkoa elektrizitatearen oinarri-prezioa kalkulatzeko harik eta oinarria finkatu arte, KPSLren 103.4 artikulua dioen modura joz.

Aipatutako indizeari dagokionez, ohartarazten da, halaber, ezen azterketa ekonomikoan $OMIE_{pliego}$ magnitudea kalkulatzeko erabiltzen diren balioak hurbildu egiten direla OMIEk argitaratutako balioetarako, baina ez datozela bat haiekin, ez baitatoz bat hilabete bakoitzeko azken prezioaren batez bestekoarekin (adibidez, 2023ko hilabeteetarako, zeinak hemen kontsulta baitaitezke: [OMIEko web-orria](#)). Gomendatzen da dibergentzia horiek ezabatzea, arrazoizko kausarik ez badago behintzat.

Gainera, azterketan, zehaztasun gutxi eskaintzen dira kanpo-faktoreen aldaketak P1 – Energia-hornidura prestazioaren ordainketetan integratzeko moduari buruz, bakoitzak bere erara aldakorra baita (adibidez, kontagailuaren alokairua kostu argi eta garbi finkoa da; energiaren gaineko zerga, berriz, aldakorra, energia-kontsumo gordina bezala, eta karguak eta bidesariak erdialdakorrak dira); ondorioz, metodo desberdinak erabil beharko lirateke

behar bezala egoki daitezen baldin eta araudia aldatzen bada. Arreta berezia merezi dute potentziari lotutako kostuek: energia elektrikoko kontsumo handiek eskatuko dute potentzia handiak kontratatzea; kontratatutako potentzia-maila zehatza, berriz, esleipendunaren kudeaketa-maila on baten mende dago, zeren potentzia-maila malgua kontratatu beharko litzateke Udaleko argi-eskarietarako, baina ez lar malgua. Arrazoizkoa ematen du, beraz, prozedura bat ezartzea zehazteko, kontratatutako potentziari dagokionez, potentzia-prezioaren zer aldaketa-maila joan behar diren Udalaren kontura, eta ez egotea esleipendunaren erabaki diskrezionalaren mende.

V. ONDORIOAK

Hori guztia dela eta, Durangoko Udaleko energia-zerbitzuak hornitzeko eta argi-sistema berme totalarekin mantentzeko zerbitzu- eta hornidura kontratu mistoak, oro har, bete egiten du lege hauek ezartzen dutena: Sektore Publiko Kontratuen 7/2017 Legea, Espainiako Ekonomiaren Desindexazioari buruzko 2/2015 Legea eta 55/2017 Errege Dekretua, zeinak 2/2015 Legea garatzen baitu.

Horregatik guztiagatik, txosten hau ematen da Durangoko Udaleko energia-zerbitzuak hornitzeko eta argi-sistema berme totalarekin mantentzeko zerbitzu- eta hornidura- kontratu mistoko kostuegitarari buruz eta prezioak berrikusteari buruz, ulerturik haiek egokitu egingo direla kontuan hartuz zer ohar jaso diren txosten honetan.